

«Biolentziak erakartzen nau, bere horretan esanahi bat gordetzen du»

Sarerik gabeko jauzia egin eta ondo atera zitzaion: Najwa Nimri aktorea bere musa bilakatu eta irudi bortitzez eta plano motzez betetako filmarekin arrakasta lortu zuen. Kritikariak maitatua eta gorrotatua, berari ez zaio asko axola eta esploratzen jarraitzen du pelikula bakoitzarekin.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Dani Blanco

Maitasuna, sexua eta biolentzia; hori da zure film askoren motorra. Bizitzaren motorra dira?

Niretzako bai, batez ere oso dinamikoak direlako eta niri beti dinamika interesatu zait. Izan ere, zinema oso gauza plastikoa da, eta literaturan ez bezala, non norberak imajinatzen dituen pertsonaiak eta munduak, zinemaren imajinazio hori estimulatzeko sentsazioak irudikatu behar direla uste dut, sentsazio grafikoak, eta ez dute zergatik intelektualki literaturan bezain modu zehatzean lotuta egon behar. Zinemaren lengoia oso emozionala da, ez hain zerebrala; beraz bai, sexua, biolentzia, akzioa... garrantzitsuak dira.

Eta plastikotasun horren aurrean zein garrantzi du kontatzen den istorioak?

Istoria oinarrizkoa da beti, baina zer da istorioa zinemaren? Literatura hutsa bada –eta ez dut modu txarrean esaten– lengoia desberdina da, teatralagoa, eta agian zinema neurri batean oraindik lotuta dago literatura eta antzerkera, gauzen ulermen literariora, baina zinemaren lengoia nire ustez askoz gehiagorako ematen du, edo niri behintzat alde emozionala gehiago esploratzea gustatzen zait, ez istorioan eta ikuslearen buruan gartzten den kontzeptuaren bidez, baizik eta ikusten dituzun irudiek sortzen duten emozioen bidez. Emozio eta sentsazio batzuetara iritsi zaitezke soilik ikusizko eta entzunezko bidea erabiliz; modu literarioagoan ez zara horietara iristen, beste emozio batzuetara baizik. Zinema ikus-entzunezko lengoia zati bat baino ez da –telebista, mugikorak, bideojokoak, Internet... barne–, baina oraindik asko

dago esploratzeko eta ez dut uste lengoia literarioari lotuta gailurrera iritsiko denik.

Irudien bidezko inpaktu horiengatik Quentin Tarantinorekin konparatzen zintuzten garai batean. Ondoren, –Ausentes filmaren harira– baita M. Night Shyamalan zuzendariarekin ere. Baten batekin identifikatzen duzu zure burua?

Ez, beraiek berdingabeak dira euren esparruan eta ni batik bat esploratzailea naiz; generoak asko aldatzen ditut eta zentzu horretan ez dut inongo konplexurik.

Dena den, Tarantino aipatu dut biok darabilzuen irudien inpaktu horrengatik, biolentziaren erabilereagatik...

Tarantinok oinarrian komediak egiten ditu eta nik ez. Berak biolentzia erabiltzen du komedia gisa eta beraz guztiz desberdina da. Halere, egia da niri ere biolentziak erakartzen nauela, ez dakit oso ongi zergatik, inpaktantea delako, biolentziaren plasmazioa oso grafikoak, oso dinami-

“Zinemaren imajinazioa estimulatzeko sentsazio grafikoak irudikatu behar dira, lengoia oso emozionala delako, ez literatura bezain zerebrala”

Nortasun agiria

Guraso euskaldunekoa, Bartzelonan jaiotzen arren Hondarribian (Gipuzkoa) eman zituen haurtzaroa eta nerabegaroa, eta “Aiako Harri ingurua, Artikutza, Bianditz...” oso gogoko ditu, mendiaren eta ehizaren zale baita betitik. Gaztetan AEBetara joan zen beka batekin, Brooklyngo Prat Arte Eder Institutuan eta New Yorkeko Zine Unibertsitatean ikastera. Hainbat film labur eta bideoak –Ruper Ordorikaren bat tartean– ostean, *Salto al vacío* film luzea zuzendu zuen 1995ean. Barakaldo inguruko gazte marjinal batzuen bizitza gogorra kontatzen duen pelikula horrekin sari ugari jaso zuen eta lan oso pertsonalez betetako ibilbidea abiatu zuen: *Pasajes, A ciegas, Asfalto, Guerreros* eta *Ausentes* zuzendu ditu orduetik.

EDIFICIO 3

Daniel
Calparsoro





koa delako, bere horretan esanahi bat gordezten duelako... eta nire ustez biolentzia bera lengoia mota bat da bizi garen gizartean, zentzu txarrean har badaiteke ere.

Dinamismo hori bilatuz hautatzen dituzu muturreko pertsonaiak, muturreko egoeratarako eramanak?

Hori egin dut orain arte, ez zitzaidalako hainbeste interesatzen jende arruntaren bizimodua, ezta nirea ere, baizik eta gaintzen dituen egoerei aurre egin behar dieten pertsonaiak. Dinamikoagoa da, eta gainera gauzak askoz haratago eraman ditzakezu eta fikzioaren esparruan sar zaitezke, modu horretan sentimendu eta emozioen munduan guztiz barneratuz.

Hortik familia desegituratu eta ama drogazale, alkoholiko, desorekatu... horienganako obsesioa?

Familia hartzen dut gizartearen isla edo metafora bezala eta gizartea desegituratua dago. Familiako kideen arteko harremanak laguntza, kanibalismo, bazterketa... harremanak dira, gizartean aurki daitezkeenak.

Zonalde industrialak, asfalto lehorra eta oro har ingurua oso esanguratsua da zure lanetan, pertsonaien patua baldintzatzeraino. Zer transmititzen dizu zuri inguruak?

Ingurua oso garrantzitsua da beti, bizitzan ere oso inportantea delako. Bizi zaren lekuaren arabera bizimodu desberdina daramazu. Pantailara eramateko orduan oso komiki zalea izan naiz txikitatik, eta komikian ingurua bera pertsonaia bat gehiago da, protagonismoa duena —ez hainbeste literaturan—. Zineman ere asko gustatzen zait inguruarekin pertsonaia bat gehiago sortzea eta inguru horren arabera oso desberdinak dira nire filmak.

Coca-Cola Hollywooden

“AEBetan, azken bederatzi hilabeteotan gidoiko aldatetekin egin dugu lan, bilera asko antolatzen dituzte eta horietan nahi dutena da zuk zure ukitu pertsonala ekartzea. Asmoa da euren marka egiten jarraitzea, baina zapore bereziekin. Coca-Cola 0, Coca-Cola light, kafeina gabeko Coca-Cola... balitz bezala, beti Coca-Cola, baina zapore desberdinekoa, horregatik daramate kanpoko jendea, ukitu berrien bila”.

Inguruaz ari garela, ez zen samurra izango *Guerberos* pelikularako Kosovo eta Montenegro arteko mugan errodatzea.

Guerberos pelikula ikaragarria izan zen, gatazka gertatu berria zen zonalde batean errodatzeko aukera eman zigulako eta dena oso freskoa zen, oso erreala. Pelikularekin oso gustura nago, istorioarekin, baina berau egiteko bizi izan genuen atzeko abentura guztiak, albaniar-kosovoarrekin eta gerrillarekin baimenak lortzea eta abar, pelikula zirrargarriagoa egiteko materiala eman zigun. Nahiko babestua dagoen Mendebaldean bizi garenok urruti ikusten ditugu gudak, baina munduaren %35-40 inguru gudan bizi da beti, nahiz eta ez garen kontziente. Konturatzen zara daukazun baloreen eskala guztiz aldatzen dela han. Kosovon izan ginenean atentzioa ematen zuen jendeak, oso gaizki pasatzen egon arren, hainbeste sufritu arren, pentsamendu baikorrak zituela beti. Geopolitikaz gain, hori ere gakoa izango zen independentzia lortzeko: oso modu baikorrean egin dute, aurrera begiratzen jakin dute, atzera begira geratu gabe. Pelikula bakoitza abentura berri bat da eta *Guerberos*en kasuan askoz handiagoa.

Teknikoki ere ez zen erraza izango halako pelikula egitea.

Zuzendari teknikoarekin hitz egin nuen eta esan nion: “Zuk eta biok Kosovoko tabernetara joan behar dugu eta gerrilla eta kultur munduko jendearekin harremanetan jarri. Ados baldin badaude errodatu ahal izango dugu, bestela ezinezkoa izango da”. Herritarren lagun egin ginen eta lanerako ere bertako askorekin aritu ginen. Harrera oso ona egin ziguten —euskaldunak ginelako, besteak beste—, sustoren bat edo beste izan genuen arren.

“Hollywooden argi daukate zertan ari diren, Europan duda gehiagorekin egiten da lan; han barneratua dute medio manipulatzaila dela”

Darabilzun musika ere garrantzitsua da filmaren erritmoa markatzeko garaian. Irudietan pentsatuz entzuten duzu musika?

Normalean filma sortzeko irudietan eta sentsazioen batean pentsatzen dut. Batzuetan musikak sentsazio horretara iristen lagutzen dit eta beste batzuetan ez, baina musika pelikula errodatu ostean sartzen dut. Irudien kontrapuntu edo osagarri bezala erabiltzen dut, baina inoiz ez dut irudikatu pelikula bat musika batetik abiatuta. Egia da musika inspirazio iturri ikaragarria dela, baina nik ez dut horrela lan egiten. Eta egia da baita ere musikak nire pelikuletan izugarritzko garrantzia duela, oinarritzko elementua da pelikula osatzeko garaian, filmaren %30-40.

Gidoilari bezala ere aritu zara. Normalean elkarrizketa gogorak, lehorak, zuzenak... dituzte zure pertsonaiek.

Gidoilari lana da gehien kostatu zaidana. Nire lehen filmean, dirurik ez genuelako gidoi erdia errodatu behar izan genuen eta egindakoa ondo geratu zenez, lanean jarraitu nuen pentsatuz gidoiak berdin zuela. Eta ez da egia, gidioia oso garrantzitsua da. Elkarrizketak pertsonaien araberakoak dira, beti ez dira zuzenak eta lehorak, ez dago araurik niretzako, ikertzen jarraitzen dut, esploratzaile bat naiz, denaren gainetik.

Azkenean ingurua, musika, gidioia... Dena prozesu sortzaile bat da eta bide ezberdinetatik helburu bakarra bilatzen dut: sentsazio batzuk, emozio batzuk irudikatzea eta transmitzea, ikusleari galderak planteatuko dizkietenak. Eta horrek denak gozatzeko moduko akabera izatea, entretenigarria izan dadila.

Gatozen orainaldira. Brooklynen eta New Yorken ikasten aritu zinen gazetetan, 90eko hamarkadan, eta orain AEBetara itzuli zara film bat zuzentzeko proiektuarekin. Nola aurkitu dituzu AEBak eta estatubatuarrek?

Estatubatuarrek oso industria definitua dute –industriaren baitan dagoen kontraindustriarekin– eta batzuek zinema komertziala egiten dute, besteek independenteagoa, baina oso argi daukate zer egiten duten eta zertarako, badakite zertan ari diren. Garbi daukate pelikulak erakutsi behar duen jarrera eta Europan duda gehiagorekin egiten da lan; han barneratuagoa dute medio manipulatzaila dela. Gehien inpresionatzen nauena lanerako duten gaitasuna da. Askok dakite zinemaz, odolean daramate, nolabait. Hemen joera handia dago AEBetako zinema

“Ikuspuntuarekin asmatu behar da eta hori argi daukadanean terrorismoari buruzko pelikula egiten saiatuko naiz”

kritikatzeko, baina hango zinema, beste lekuetako bezala, pertsonen egina da eta nire ustez pelikula interesgarrien %80a AEBetatik edo euren orbitatik dator.

Ausentes pelikularen remake-agatik joan zinen AEBetara, baina azkenean bestelakoa da han hitzartu duzun proiektua. Zer aurreratu diezagukezu?

Remakearen proiektua hor dago, baina nik ez dut zuzendu nahi, berriz pelikula bera errodatzea nahiko absurdoa delako. Sam Raimi (*Spiderman*) zuzendariaren produkzio-etxearekin ari naiz lanean eta bi urte daramatzat gidoi batean lan egiten, aktoreak eta lekuak hautatzen, eta bilera amaigabeak egiten, benetan amaigabeak! Urte honen bukaera eta hurrengoaren hasiera artean errodatzea da asmoa. Zientzia fikziozko istorioa izango da, gizarte estatubatuarren buruzko mezu oso interesgarria bidaltzen duena: inbadituta sentitzen direnean, elkartu beharrean elkarri erasotuko diote, etsaia euren artean bilatuko dutelako. Beldurrezkoa da eta elur ekaitz batean gertatuko da istorioa... baina ezin dizut informazio gehiago aurreratu.

Eta zuri zerk ematen dizu beldurra?

Oraintxe bertan, nire semeari ezer txarrik gertatzea, ni baino urte gehiago bizi dadila nahi dut.

Hollywooden globalizazio nahiak ez al zaitu beldurtzen?

Ez, zergatik? Globalizazioa kezkatzekoa iruditzen zait desberdintasun sozialak handitzen eta orokortzen joan daitezkeen heinean, baina informazioa orokortzea eta gauzetara iristeko erraztasun gehiago egotea oso ona iruditzen zait.

Espanian beste proiekturen batean ere bazaude murgilduta.

Bai, uztailearen 28an hasiko gara errodatzen. Errealitatean gertatu den historia da, arazoak dituzten klase ertain eta altuko gazteentzako Guantanamo antzeko batean girotua. Bost gazte Europan existitzen diren landetxe horietako batera bidaliko dituzte, erreformatorio alegalen antzekoak. Antena3 telebista kateak eskatutako proiektua da.

Halakoetan, komertzialtasunaren eta sormen artistikoaren arteko oreka bilatu behar al da?

Lehen aldia da hain modu zuzenean telebistarako lan egiten dudana eta niretzako erron-

Najwa Nimri

“Elkarrekin lan egiten genuenean nahi nuena imajinatzeo aukera ematen zidan: pertsonaia oso desberdinak antzetzeko gai da, transformatzeko erraztasuna du, eta erosotasun kontua zen, Sestaoko giro marjinaletako neska bat edo Madrilgo emakume sexy bat antzetzeko gauza zelako”.

ka da, telebistak lengoia askoz zuzenagoa duelako eta audientziak askoz handiagoak dira. Istorio gogorra da eta mezua iristeko moduan kontatu behar dut, baina aldi berean gaueko 22:00etan jartzeko modukoa izan behar du. Mundu berria da niretzat, baina oso interesgarria.

Hollywooden ere komertzialtasuna bilatuko dute...

Bai, beste inon baino gehiago. Oreka bilatzearena bakoitzaren hautua da. Zure bide propioa egiten ari bazara bide hori jarrai dezakezu eta ez duzu zertan oreka batera iritsi beharrik. Norbaitentzat ari bazara lanean ere, jarraitzea edo uztea zure erabakia da, baina beti ona da oreka bat aurkitzea, zuk nahi dituzun gauzak kontatu ahal izateko ahalik eta jende kopuru handienera iritsiz.

Zer eskatzen diozu pelikula bati?

Nirea bada, aurrekoa baino hobe izan dadila, nahiz eta ez den beti hala gertatzen, kar, kar, kar. Zinera baldin banoa, film bati emozioz beteriko zaku bat eskatzen diot. Eta gainera emozio horiek nire baitan geratzen badira, hau da, iraunkorrak badira, hobe. Ez daitezela soilik su artifizialak izan, horrek aspertu egiten nauelako. Batzuetan 9 areto dituen zine batera joaten naiz, sarrera bat ordaindu, azken aretora joan eta film bakoitzetik 10 bat minutu ikusten ditut, baten batek *engantxatzen* nauen arte.

Komedia batekin hasi zinen. Itzuliko zinateke komedia egitera?

Bai, asko gustatuko litzaidake egitea eta ziur egingo dudala. Urte pare bat daramatzat komedia batean pentsatzen, baina oraindik ez dut aurkitu ideia bat komedia egiteko bezain indartsua denik. Komedia ona oso genero zaila da.

Baina etiketa gainera kentzea zaila al da, aktoeren kasuan bezala, zuzendarientzat?

Badaude etiketak, baina zu zeu zara horren egilea eta etiketa jartzen duzun moduan kendu ere egin dezakezu. Beste proiektu batzuk prestatu, pelikula desberdinak egin... eta etiketa kenduko dizute.

Elkarrizketa batean irakurria: zaletasunak dituzue ehiza, emakumeak, ardoa, liburuak eta diskotekak. Berrir bat gehituko zenioke zerrendari?

AZKEN HITZA Diskoloa

“Sariak oso ondo daude, batez ere hasten ari zarenean. Gero bakoitzak bere bidea egin behar du. Nik ez ditut sari gehiegi jaso, jaialdi askotan egon banaiz ere oso *diskoloa* izan naizelako eta jendeari gustatzen zaio saritzea ongi portatzen dena; oso ongi portatzen ez bazara zailago jartzen dizute”.



Kritiken mozkorra

“Kritika oso onak eta oso txarrak izan ditut, baina kritika beti baikorra iruditu zait, baita oso txarra izan denean ere. Hain justu, kritika ezkorretik gehiago ikasten da —inteligentea bada eta ez kritika gaiztoa eta mingarria—. Izan ere, arrakastek mozkortu egiten zaituzte, ikuspegia ez da guztiz garbia”.

Oraintxe bertan, nire zaletasun handienak semea eta emaztea ditut. Mendia eta ehiza betitik gustatu zaizkit baina orain haurraren gainean egon behar da eta ahaztuxeago dauzkat. Diskotekara aspaldi ez noala eta ardoa aldiz, bai, pila bat gustatzen zait, kar, kar, kar. Ondo jatea eta edatea atsegin dut.

Esan izan duzu euskal zinema ez dela existitzen.

Hori esan nuen Euskal Herriko zuzendari batzuk baginelako, baina ez zegoen euskal zinemarik, suposatzen delako zinema txinatarra dela txinatarrei buruz hitz egiten duten txinatarrek; eta ez zegoen euskaldunei buruz hitz egiten zuen euskal zinemarik. Euskalmedia egin zenean, ekoizle bati diru asko eman zitzaion, ekoizle hori Euskal Herrian egiten zena sustatu beharrean Hego Amerikan pelikulak egiten jardun zen eta Urbizu, Medem, Alex de la Iglesia, Bajo Ulloa, ni neu... Madrilera joan behar izan ginen, Euskal Herrian ez

genuelako ekoizterik lortzen. Hori asko aldatzen ari dela egia da, baina nik nire lehenengo pelikulak han errodatu nituen, eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bakar bat ere ez nuen jaso.

Euskal gatazka zeharka ukitzen duen film bat badaukazu (*A ciegas*) eta besteren batzuk ere egin dira, baina nire ustetan gehienak nahiko artifizialak. Bereziki gai zaila al da jorratzeko?

Nik pelikula buñueliarra egin nuen, ez zuen errealista izan nahi. Baina betitik asko erakarrari nauen gaia da. Ikuspuntuarekin asmatu behar da eta hori argi daukadanean terrorismoari buruzko pelikula egiten saiatuko naiz, lehenago ez.

Eta nolako filma izango litzateke? Nola ikusten duzu euskal gatazka?

Enkistatua ikusten dut. Treguarekin pentsatu nuen nonbaitera iritsi zitekeela, baina badirudi ezetz. Egoera oso enkistatua dago, hori da hitza. Ez doa inora eta inora joateko itxurarik ere ez dauka. Baina etorkizunak esango du. Gauzak azkenean edo zentzua daukate edo beren kabuz hiltzen dira; iruditzen zait dagoen ikuspuntua nahiko anakronikoa dela. ■

www.argia.com/bideoak
helbidean, elkarrizketaren eta bere filmen bideoa.